

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan, bezeroekin harremanetan jarri, eta zerbitzu bat eskaini behar diegu. Azazkalak egiteko, aurpegiko maskarak jartzeko, masajeak emateko eta laser depilazioa egiteko gure teknika propioak ditugu eta gure funtsezko jarduera da hori, beraz ez dugu kanpoko enpresa batzuen esku utzi beharrik. Gu antolatzen gara gure lana egiteko eta kremak eta produktuak ekarri behar direnean, beste enpresa bat kontratatzen dugu. Hala ere sare sozialak ere lan handia ematen dute, eta gu gara sortu eta erabiltzeaz arduratzen garenak. Gure bezeroei garrantzi handia ematen diegu eta haien gustura egiten dugu lan. Haien eskatutakoa diseinatzen dugu eta behin lan hori eginda, bezeroak eskatutakoarekin martxan hasten gara.